

LEZO / Bihar amaituko da irakurketa klubean izena emateko epea

Udal liburutegiak bi irakurketa klub antolatu ditu ikasturte berrirako, bata euskarazkoa eta bestea, gaztelerazkoa. Horietan parte hartu nahi duten lezoarrek, bihar izango dute azken aukera, izena emateko epea orduan amaituko delako.

Euskarazko irakurketa klubean parte hartzen duten lagunek, azaroaren 7an izango dute lehenengo hitzordua Iñigo Aranberriren Zamaontzia liburuaren gaineko azterketa egiteko. Horretarako, aldezturik, urriaren 17tik 21era bitartean udal liburutegitik pasa beharko dute liburuaren bila egitasmoaren barruan irakurriko ditzuten liburuak bertan banatuko dizkietelako.

Abenduaren 19an, otsailaren 27an eta apirilaren 23an elkartuko dira berriro, eta Anjel Lertxundiren Etxeko hautsa; Jose Inazio Basterretxearen Azken tranbiaren itzala; eta Goizane Landabasoren Brànskint liburuak aztertuko dituzte.

Gaztelerazko Klubeko kideek, berriz, azaroaren 22an dute lehenengo hitzordua. Sofi Oksanen Purga liburua aztertuko dute eta azaroaren 2tik 8ra bitartean jaso beharko dute liburutegian. Urtarrilaren 31n, martxoaren 27an eta maiatzaren 29an elkartuko dira berriro, Angeles Mastretaren Mal de Amores; Paul Therouxen La costa de los mosquitos eta Geling Yanen La novena viuda liburuaz aritzeko.